

**Pilota** ♦ Toki Alai frontoia bete egingo da, lau t'erdiko partiduaren eta Titinen ikusmiran

# Elkoro, ligaxkari so

*Sailkatzeko, Goñi I.a gainditu beharko du gaur Zegaman*

Enekoitz Telleria / Donostia

ZEGAMAKO Toki Alai pilotalekuan jendetza bilduko da gaur (22:30, ETB1). Ez da aspaldian Goierri partean horrelako maila duen jaialdirik antolatu, eta inguruko pilotazaleek ilara luzeak sortu zituzten herenegun Zegamako kultur etxean, sarrerak salgai jarri ziren egunean. Bihar, sanmartinetako azoka egingo da Zegaman, baina bezperatik hasi nahi dute festa bertakoek.


Oskar Goñik eta Aitor Elkoro abiatuko dute jaialdia. Lau t'erdiko txapelketako Asperen ligaxkan aritzeko txartela dute jokoan —Eugi eta Titin III.a dira adar horretan txartela lortu duten baka-

rrak—. Pronostiko argirik gabeko partidua da. Elkoro bigarren partidua du Fernando Goñi gainditu ostean. Goñik, iaz txapelketa bikaina egin ostean, aurrenekoa. Badiudi, beraz, Elkoro baduela abantaila txiki bat, baina berak kontrakoa dio: «Aurreneko partidua nahiko arriskutsua izaten da. Ongi entrenatu arren, presioa hor ego-

ten da. Txapelketa baten lehenengo helburua aurreneko partidu hori gainditzea izaten da. Partidu honek ere badu presioa, ordea. Asko dago jokoan. Irabazten duenak ligaxkan sartzen da, eta ligaxkan sartuz gero, beste lasaitasun bat dauka pilotariak».

Pilota aukeraketa egunean ikusi zenez, pilota biziagoak aukeratu zituen Goñik Elkoro baino. Nafarrak zioen sarea ezker-paretatik «oso bizkor» irte ten dela Zegaman —margotu berria da frontoia— eta gakoe-tako bat hor egon daitekeela. Elkoro antzera mintzo da: «Berak sakearekin min egiteko asmoa edukiko du, partidu motza egin nahiko du eta ni lekutik kanpo atera. Nik, alderantziz, niri kosta egiten zait tantoak bukatzea, baina niri tantoa egitea ere kosta egiten zaie. Pilotan egin nahi dut».

Txapelketako partidu horren ostean, Titin III.a-Zezeaga eta Etxaniz-Lasa III.ak jokatuko dute partidu nagusia. Titin Goierriko partean



Aitor Elkoro, entrenamendu batean.

ikusteko aukera ez da alferriko galduta nahi.

## Esna-Otaegi Hernanin

Bigarren mailako lau t'erdiko ligaxka gaur abiatuko da, Hernanin. Esna herritarrek eta Otaegi azpeitiarrak dute aurreneko partidua. Besa-

gaingoa Badiola III.a kanporatuta sartu zen finalerdietan. Iban Otaegi Garfekoak, berriz, bigarren mailako lau t'erdikoak eman duen ezusteetako bat da. Enpresa horretako pilotari bakarra izan, eta Gorostiza Asegarcekoa eta Berraondo Aspekoa kanporatu ditu bikain.

## laburrean

### SASKIBALOIA

#### ■ Ewingek giltzurrun bat eskaini dio Mourningi

NBA-KO deboraldi osoa jokatu gabe egin beharko du Alonzo Mourningek, Miami Heateko pibotak, giltzurrun batean duen gaitz larriarengatik. Tratamendua jarri eta, ahal den neurrian, transplantea eragotzi nahi dute medikuek. Dena dela, giltzurrun berria beharko balu, Seattleko Patrick Ewingek bere giltzurrun bat eskaini berri dio bere «lagun minari». Bestalde, Atlantako Dikembe Mutombo pibota taldera itzultzekotan da, malariak jota bi aste egin ostean. Azken jardunaldian, aldiz, denboraldiko bere hirugarren partidua galdu du Los Angeles Lakersek, oraingoan San Antonio Spursekin (1).

#### ■ Patrick Dyse aurkeztu du Askatuak-ek

EGUN bateko atzerapez, atzo iritsi zen Donostiara Patrick Dyse, Cafes Aitona-Askatuak-eko jokalaria berria. Texas Southern unibertsitatetik dator, 23 urte ditu, 1,91 metro eta joko antolatzaile-eskolta da. Pacho Giuriak, bestalde, atzo alde egin zuen Donostiatik, Askatuak-eko Iñaki Almandoz presidentearekin bere kontratuta eteteko ados jarri ostean.

### R A L L Y A K

#### ■ Gronholm aurrean jarri da hasieratik Australiako rallyan

MUNDUKO Rally txapelketako liderrak, Marcus Gronholmek, bikain hasi du Australiako rallya, txapelketako azken aurreko proba. 2,2 kilometroko proba berezi bat baino ez zen korritu atzo eta gaur hasiko da benetako lehia, baina hasieratik erakutsi dizkie hortzak Gronholmek kontrarioei: McRaeri (5.), Burnsi (9.) eta Sainzi (10.)

### F U T B O L A

#### ■ Eibarko Eleder zalantzan iganderako

TENDINITISA du Eibarko Eleder atzelariak eskuin belaunean eta arazoak izango ditu igandean Ipuruan Badajozen kontra jokatzeke. Jokatu ezean, Matxon, Galdames, Gari eta Gartzenek osatuko lukete atzealdea.

## Ziskar II.ak Urkia ere gainditu du (31-35)

E. Telleria / Donostia

HIRUTIK hiru. Ziskar II.ak Euskadiko buruz buruko pala txapelketan jokatu dituen hiru partiduak irabazi ditu, eta, bihar bertan, Daniel Garcia aurrelari errioxarren kontra jokatuko du laugarren kanporaketa. Atzo, Bilboko Deportivon, Iñigo Urkia hartu zuen mendean Mungia-koak (31-35). 10-20 joan zen partidua. Inork espero ez eta 31-32 hurbildu zen Urkia, baina bertan gelditu zen. Ziskarren sarea erabakigarria izan zen, beste behin; 11 tanto egin zituen atzo jokaldi horrekin, bikain.

Bigarren mailako buruz buruko txapelketako partidua ere jokatu zen atzo. Bikaina Zabalza egiten ari den



Luis Ziskarrek txapelketako bere hirugarren partidua irabazi zuen atzo.

txapelketa ere. Bere hirugarren partidua irabazi zuen Ziskar I.aren kontra (30-35). Hurrena Leundaren kontra jokatuko du.

Galarretan, Ezkurra onena atzo ere. Txikuriaren laguntzarekin, Matxin-Altuna I.a-Aizpuru hirukoa hartu zuen mendean (40-31). Hasiera

### gaurko partiduak

#### ZEGAMA. 22:30 (ETB1)

- Lau t'erdiko txapelketa: Goñi I.a / Elkoro
- Titin III.a-Zezeaga / Etxaniz-Lasa III.a.

#### MIARRITZE. 20:00.

- Koka-Balerdi / Arbizu-Imaz
- Agirre-Beloki / Tirapu-Patxi Ruiz.

#### HERNANI. 22:00.

- Arteaga-Korta / Oiaga-Aldazabal IV.a
- 2. mailako lau t'erdikoa: Esna / Otaegi.

#### ARAMAIO. 21:30.

- Fuertes / Zubiaga
- Legorburu-Mendia / Ayo-Oregi I.a.

oso orekatu batean ostean, Ezkurrak erabaki zuen partidua.

Horren ostean, Garikoitz Altunak ez zuen garaipena lortzerik izan bere itzuleran. A. Lekunberrirekin, 19-35 galdu zuen, Elizalde-Iriarteren kontra.